

azpeitian zer?

120. zenbakia

udal aldizkaria

2009ko iraila

25 Azpeitiko Udal Euskategia urte



Mende laurden
euskararekin


*Azpeitiko Udal Euskaltegiak 25 urte
beteko ditu aurtego ikasturtean*

zer?



- 3 Inkesta
- 4 Proposamenak, kexak...
- 5 Munoaundira bisita
- 6 Esnatu ikastaroa
- 8 Euskaltegiak 25 urte
- 12 Motxean
- 14 Parekidetasuneko ikastaroa
- 15 Erdiaroko azoka

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
 Egilea: Prensua bulegoa
 Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
 Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
 Ale kopurua: 7.000
 L.G: SS - 1148/91



Paper birziklatuan egina



telefono interesgarriak

Azpeitiko Udala

Zentralita	943 15 72 00	Udal Euskaltegia	943 81 19 47	Bailarako Nekazari	
Alkatetza	943 15 71 85	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75	bulegoa	943 81 24 85
Idazkaritza	943 15 71 98	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83	Enplegu Bulegoa	943 15 03 00
Kontuhartzailetza	943 15 71 89	Ingurugiro Etxea		1. Epaitegia	943 02 51 91
Hirigintza	943 15 71 91	Fundazioa	943 15 17 13	2. Epaitegia	943 02 51 92
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70	Erregistro Zibila	943 02 51 99
Kultura	943 15 70 68	Kontsumitzaileen		DYA	943 46 46 22
Komunikazioa	943 15 79 82	Informaziorako Bulegoa	943 15 71 93	Gurutze Gorria	943 85 32 97
Kirolak	943 15 00 95	N.A.N. Bulegoa	943 15 71 60	S.O.S. Deiak	112
Parekidetasuna	943 15 79 28	Baigera I	943 81 51 71	Taxiak	943 81 13 07
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Baigera II	943 81 23 89	Urkome	943 81 65 00
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Ingurugiro Etxea			
Zapo Txoko /Gazte		Museoa	943 81 24 48		
Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 61			Sexologia zerbitzua	943 15 10 30
Eguneko Zentroa	943 15 71 94			Etxebizitza bulegoa	943 81 66 99
Liburutegia	943 15 71 95	Alkoholiko Anonimoak	629 14 18 74	Astear te eta ostegunetan	
Udaltzainak	943 15 13 13	AL-ANON Alkoholikoen		18:30etik 19:00etara eta asteazkenetan	
Suhiltzaileak	112	Sendiak	943 47 54 03	12:00etatik 14:00etara.	
Igerilekua	943 81 41 21	Trenaren Museoa	943 15 06 77	Baserritarren produktuen	
Polikiroldegia	943 81 30 69	Anbulategia	943 02 54 00	merkaturatze bulegoa	943 15 10 29
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Larrialdiak	943 02 54 01	Astear teetan 10:00etatik 13:30era eta	
Euskara Patronatua	943 81 45 18	Ertzaintza (Azkoitia)	943 08 37 80	ostegunetan 16:00etatik 19:30era.	

inkesta zer dio kaleak?

Ikasturte hasieran ikastaroetan izen emateko ohiturarik ba al duzu?



Orhantza Alegria

"Egin izan ditut ikastaroak, baina aurten ez dut aurreikusten egiterik, denbora ere gutxiago baitut. Musikarekin zerikusia duten ikastaroak gustatzen zaizkit, eta herrian eskaintza egon badagoela iruditzen zait, baina askotan garestiak izaten dira. Egia da ordaindutako ikastaro bat serioago hartzen duela jendeak, baina prezio batzuk garestiegiak iruditzen zaizkit. Musikarekin lotutako ikastaro gehiago eta merkeagoak eskatuko nitzuke nik". ■



Alicia Gomez

"Nik aerobic ikastaroa egiten dut. Orain bi urte hasi nintzen, eta aurten ere eman dut izena. Kiroldegiak eskaintza zabala duela iruditzen zait, eta oso egokia. Aerobicen, esaterako, ordu asko daude, talde asko, eta irakasleak ere onak iruditzen zaizkit. Gainera, herritar askok hartzen du parte, giro oso ona egoten da, eta jende gehiago ezagutzeko aukera eskaintzen dute. Agian pixka bat garestiak dira, baina nik uste dut merezi duela". ■



Lourdes Odriozola

"Ikastaro mordoak egiten ditut nik, baina lanetik. Salgai ditudan produktuen etxeak makilaje eta bestelako ikastaro asko ematen dizkigute, eta sarri-sarri joaten naiz Donostia edo Bilbora. Horiek eginda, besterik egiteko denborarik ez dut izaten. Hori bai, bezeroek eta askotan eskatzen dizkigute makilaje eta bestelako ikastaroak geuk emateko, eta agian horrelako batzuk antolatzea ez legoke gaizki." ■



Jakes del Pozo

"Eskolatik aparte ez dut aparteko ikastarorik egiten. Denbora librea nire erara aprobetxatzea gustatzen zait, nire ama eta familiakoekin, eta baita lagunekin ere. Ikasturte hasieran eskolara joatea bera nahiko gogorra egiten zait eta oraingoz behintzat ez naiz ezertan apuntatu. Nire gurasoek ere ez dute ohiturarik ikastarotara joateko, baina ondo iruditzen zait ikastaroak egitea, bai ume eta bai helduentzat, ikastea beti baita ona". ■

Proposamenak, kexak...



Garate Anaia 2rako sarrera

Garate Anaia 2 etxepekoek ezin izaten dugu kalera irten eta etxera sartu "kotxe kapota", "silla de ruedas" edo erosketak egiteko karroarekin, portal aurrean autoak aparkatuta egoten baitira elkarren ondoan, eta ez baitigute irtetzen uzten.

Portal aurrean ezin al daitezke pare bat pibote eta aldapa bat jarri, arazorik gabe eta eroso ibiltzeko?

Etxepekoak.

Sanjuandegiko aparkalekuak

Aparkalekuei buruz kexa bat jartzea gustatuko litzaiguke (Salbe auzunea). Aparkaleku gutxi egoteaz gain, (kabanak eta kamioiak aparkatzen dituzte), auzokide batzuk euren garaje aurrean aparkatzen dugulako kexatu egiten dira, nahiz eta hauek baimendutako pasabi-

dea ez pagatu. Udaltzainak isuna jartzera etortzen dira, hori bai, nahi dutenean edo nahi ez dutenean, edota nahi duenari edo nahi ez duenari. Espaloi gainean aparatzuz gero isuna jartzen dizute, eta espaloi behean aparkatzeko agintzen dizute, baina hurrengo batean nahiz eta espaloi behean aparkatu, isuna jartzen dizute, eta aurretik esandakoarekin ahaztu egiten dira. Gure ustez nahiko zerga ordaintzen ditugu egunero isunak pagatzen ibiltzeko. Ondo araututa egotea nahiko genuke, edota beti berdin izatea, ez udaltzainak bertatik pasatzen direnean edo auzokide aspertuak kexatzen direnean soilik.

Auzokide taldea

Parkeen txukuntasuna

Azpeitiko parke gehienak, zoritxarrez, txakurren komun bihurtu dira. Enparan Dorretxean, Zelai luzen... edonon ikusi daitezke ordu finkoetan txakurrak (eta bere arduradunak) pasieran. Eta, bide batez, gorputza arintzen... Leku hauetan edozein bazterretan ikusi daitezke paisera horien "oroigarriak". Zikinkeria handia da, kalea guztiona da eta guztion artean zaindu beharko genuke.

Ramon Odriozola

Segurtasuna

Artzubia 37ko bizilagun bat naiz. Jakin dut orain portalaren aurrean autoen pasabidea bat jarri behar digutela, atzean poligono bat egin dutelako. Ez al litzateke egokiagoa etxerako sarbidearen aurrekaldea dagoen bezala utzi eta autoen joan etorria, biak, etxearen atzekaldetik jartzea? Uste dut horretarako nahikoa toki badagoela, eta horrek gure etxepekoen segurtasuna nabarmen hobetuko luke. Izan ere, ume asko bizi da bertan, eta etxe aurrean errepeidea jartzea oso arriskutsua iruditzen zaigu.

Idoia

Kanpoko igerilekua

Ilatzi honen bidez nire kexa luzatu nahi nuke kanpoko igerilekuari buruz. Eguraldi ona egin ez gero bertara joateko ohitura hartu dut udan, horretarako hiru hilabeteko kuota familiar bat ordainduta. Arazo bat topatu du, ordea: Eskuin aldean jartzen direnak blai eginda amaitzen dute, harritik eta perretxikotik etortzen den urarengatik. Udalarari eskatu nahi nioke neurriak hartu ditzala, panel batzuk jarri edo bestela perretxikoko ura kenduz.

Idoia Aranbarri

Loiolako hiribideko trafiko arazoak direla eta:

Esklabetan telesail bat grabatzen ari direla eta herriko trafikoan sortu diren arazoaren aurrean zera adierazi nahi du Azpeitiko Udalak:

Errepeidea mozteko baimena Gipuzkoako Foru Aldundiak eman die telesailaren arduradunei, bere kargu baitago Loiolako hiribideko errepeidea. Baimena eman ondoren, Azpeitiko Udalarari ere jakinarazi zioten errepeide mozketa izango zirela.

Halere, mozketa horiek herriko errepeideetan sor zituzketen eragozpenak behar bezala ez dituela aurrekusi onartzen du Udalak, eta barkamena eskatzen die arazoak pairatu dituzten herritarrei.

Gertatukoarekin eskarmentua hartuta, eta jakinda gisa honetako ekimenek beti sortuko dituztela eragozpenak, hemendik aurrera horrelako egoeretan arazoak murrizten saiatzeko konpromisoa hartzen du Udalak.

Julian Eizmendi Zinkunegi
Azpeitiko alkatea

Munoaundi deskubrituz

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura ardurandunek eta Azpeitiko eta Azkoitiko alkateak indusketa arkeologikoan izan dira bisitan.



Ordezkarri politikoak, Munoaundin.



Indusketak egin dituzte udan.

munoaundiko Burdin aroko herri harresituan udan egindako lanak bertatik bertara ezagutu dituzte Foru Aldundiko eta Azpeitiko eta Azkoitiko udal ordezkariak. Indusketaren IV. kanpaina amaitu berria da, eta inguruko eta kanpoko langile asko aritu da bertan lanean. Lanen martxaren berri izan dute ordezkari politikoak.

2006an hasi zituen Aranzadi elkarteak indusketak, eta ordutik Burdin aroari buruzko aurkikuntza garrantzitsuak egin dira bertan. Munoaundiko sarreran, esaterako, bi torre aurkitu dituzte, garai hartako herrixka babesteko bi eraikin irregular. Euren diametroa 12 metrokoa

izaki, torre handiak zirela ondorioztatu dute Aranzadikoek, eta Gipuzkoan gisa horretako beste eraikinik ez dutela topatu nabarmendu dute. Horrez gain, brontzeko pisu bat, tornuzko zeramika, labanak, eta giltzaorraz bat ere aurkitu dituzte azken urteetan, eta aurrez, gainera, zereal aleren bat edo beste ere agertu da. Indusketen kanpaina 2012ra luzatu dute, bertan aurkikuntza handiak egiteko esperantzan baitira Aranzadikoak.

“Orduko herritarren eguneroko bizitza ulertu eta gure jatorria hobeto ezagutzen lagunduko du”

lkerketen arabera, Munoaundi herri harresitua duela 2.500 urte baino gehiago sortu zen, Azpeitia eta Azkoitiko mugaren inguruan. Garai horretako biztanleek mendi altuak aukeratzen zituzten euren herriak eraikitzeko, babestuta egoteak eta ingurutako lurrak kontrolatzeak garrantzi handia baitzuen. Askotan, Munoaundiko kasuan bezala, babes naturala areagotzeko harrizko harresiak egiten zituzten. Aranzadikoek nabarmendu dute Munoaundiko aurkikuntzak oso garrantzitsuak direla “garai hartako herritarren eguneroko bizitza ulertu eta gure jatorria hobeto ezagutzeko”.

Iratarri eta ekin

Ekintzailetasuna sustatzeko tailer berezia egingo du Iraurgi Lantzenek irailaren 15ean, Entropia enpresaren eskutik

Esnatu egin nahi ditu Iraurgi Lantzenek Urola erdiko ekintzaileak. Garapen agentzia izaki, ekintzailetasun kultura sustatu eta bultzatzeko helburua du, eta horretarako tailer berezia antolatu du irailaren 15erako. Europako gazte talentu titulua jaso duen Manu Egañak eta Josetxo Jimenezek emango dute tailerra, bost-sei ordu iraungo du, eta Finlandiatik ekarritako teknika bereziak erabiliko dira bertan.

Iratarri izena jarri diote ekimenari, ekintzaile diren edo izan nahi dutenen harra esnatu nahi dutelako. "Gaur egun gure eskualdean jende asko dago langabezian edo egoteko arriskuan, edo asko dira enpresa bat sortzea burutik pasatu zaienak. Jende horren bila gabiltza, pauso hori ematera animatzeko". Hala azaldu du Alazne Larrañaga Iraurgi Lantzeneko ordezkariak. Tailerraren azken helburua eskualdean enpresa berriak sortzea da. Ekintzailetasuna sustatzeko ekintza ezberdin ugari antolatu ditu Iraurgi Lantzenek azken sei urteetan, baina aurtengoan zerbait berezia egin nahi zuten, Europan sormenaren urtea dela kontuan izanik. Hori buruan zebiltzala, Entropiako kideekin egin zuten topo sustapen agentziak antolatutako Barnekintzaile jardunaldietan, eta haiek tailerraren berri eman zioten: "bazirudien elkarren bila genbiltzala, izan ere guztiz bat zetorren tailerraren filosofia guk eskualdearekin dugun konpromisoarekin".

Hiru zatitan banatuko da tailerra, eta ondorioen arte batekin amaituko da. Guztiz parte hartzailea izango da, eta talde

lanean ere arituko dira. Dohanik izango da, eta interesatu orok hartu ahal izango du parte. Horretarako 943 85 11 00 telefonora deitu besterik ez dago.

Zer:
"Iratarri" ekintzailetasuna sustatzeko tailerra.

Noiz:
Irailaren 15ean, 09:00etatik 14:30era

Non:
Intxausti Jauregian, Azkoitian.

Izen ematea:
Doan, honako telefonoan:
943 85 11 00



ERREALISMO MAGIKOA + KULTURA + JARIAKORTASUNA + NAZIOARTEKO BELAUNALDI AK





“Norbere balioak atera, indartu, eta lanera bideratzeko balioko du”

Manu Egaña eta Josetxo Jimenez,
Entropia enpresako kideak.

Euren tailerraren arrakasta parte hartzaileen barre kopuruaren arabera neurtzen dute Manu Egaña eta Josetxo Jimenezek. Azkoitikoan parte hartuko dutenek ondo pasatzea ziurtatuta dute, hortaz. Baina hori bakarrik ez: tailerrak ekintzailetasuna esnatzeko ere balioko duela ziur daude Entropia enpresako kideak.

Iratzarri. Baina zer iratzarri nahi duzue zuen saioarekin?

Ekintzailetasuna. Azkeneko urteetan badirudi hemengo ekintzailetasuna lo dagoela, duela urte batzuetan izandako oparotasuna geldotu egin dela, eta hori esnatu nahi dugu. Lo dagoena espabilatzeko botatzen zaion ur baldekada hori izan nahi dugu, pertsona bakoitzari gaitasunak badituela gogorarazi eta horiek ateratzeko.

Eta nola egingo duzue, hori, zehazki?

Saioa guztiz praktikoa da, eta gauza ezberdin ugari egiten ditugu. Guk lema bat dugu: saio baten arrakasta parte hartzaileek egindako barre kopuruaren arabera neurtzen da. Horrek esan nahi du ondo pasatzeko helburua dugula. Manuk Finlandian Talde Garapenerako ikasketak egin zituen eta handik ekarritako metodoak erabiltzen ditugu. Gure asmoa da generazio eta esparru ezberdineko jendea elkarlanean eta harremanetan jartzea, ahalik eta modu atsegina eta

egokienean. Izandako esperientziak erakusten digu horrelako nahasketa eta interrelazioak oso aberasgarriak direla.

Hori goiz batean bakarrik egin daiteke?

Sei orduko ikastaroa da eta horrek ematen duena ematen du. Tailer hau bide baten aurreneko fasea soilik da. Guk ekintzailetasuna esnatu nahi dugu, jendea konturatzea gauzak aldatzea bere esku dagoela, buruari eragin behar diola, eta jarrera pasiboa izatetik aktiboa izatera pasatu behar duela. Jendeak lan munduaz eta lan harremanez duen ikuspuntua aldatzea da helburua, eta hori egiteko ematen du tailer horrek.

Ekintzailetasuna sustatu nahi duzue, baina euskalduna, berez, ez al da tradizionala?

Hori topiko bat dela uste dugu. Euskal Herrian beti izan dira ekintzaileak historian: Terranobara joan ginen, bale arrantzan ibili, industrian ere adibideak ugariak dira... Gertatzen dena da askotan


ekintzailetasuna eta enpresa modu jakin batean soilik ulertzen direla. Gure ustez, ordea, Inurrategitarrak Himalaiara joateko expeditioa montatzea bera ekintzailetasuna da, herriko futbol taldea kudeatzea ere bai... Askotan bestela uste dugu, baina bakoitzak baditugu gure balioak eta balio horiek atera, indartu, eta lan esparrura bideratzea da kontua. Ekintzailetasuna teknologiarekin lotzen da sarri, baina hori baino askoz gehiago da.

Iraurgi Lantzenen emango duzuen ikastarora joaten denak zer eramango du etxera?

Lokartuta etorri eta begiak zabaldua ematen baditu konformatzen gara. Bizitza eta lan harremanak ulertzeko beste ikuspegi bat emango ditu, buruan duen hori egiteko gaitasuna baduela jakingo du, eta egin nahi badu berak egin beharko duela. Eta guzti hori ikastaro aberasgarri eta ezberdin batean, eta ondo pasatuaz. Gisa honetako tailerrak garestiak izaten dira, berez, gainera, eta Iraurgi Lantzenekin doan egiteko modua izango dute. Inondik ere ez da izango denbora galtzea.

Mende laurdeneko euskalduntzea

Azpeitiko Udal Euskaltegiak 25 urte beteko ditu ikasturte honetan. Mende laurdenean izandako bilakaera azaldu dute euskaltegian zuzendari aritutakoek.



Udal euskaltegiaren hasierako egoitza.

83ko uholdeek Arzubia hiribidean, (trenbideko zubiaren inguruan) zeuden INEMen ikasgelak hartu eta hondatu egin zituzten, Azpeitiko beste hainbat txoko eta bazterrekin batera. Gertaera larri hark, ordea, frutu positiboak ere eman zituen handik urtebetera: Azpeitiko Udal Euskaltegiak bere lehen ikasturteari ekin zion 1984an, ikasgela haietan bertan, beharrezko garbiketa eta konponketak egin ostean. Pello Elorza orduko zuzendaria ondo akordatzen da; ordurako euskaltegia martxan jarri nahi eta toki bila zebiltzan, eta uholdeen ondoren INEMek toki hura

uzteko erabakia hartu zuela jakin zuten. “Bulego horiek txukuntzeko konpromisoa hartu eta gela horiek erabiltzen uzteko eskatu genien, eta haiek baiezkoa eman”.

25 urte pasatu dira ordutik, mende laurdena. Eraikina, klaseetako materialak, ikasleak, irakasleak... guztia aldatu da hasiera hartatik: lau eraikin ezberdin izan ditu Udal Euskaltegiak mende laurden honetan, hiru zuzendari, eta 3.860 ikasle inguru. Ikastaroen bilakaera ere nabarmena izan da: hasieran euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak ematen zituzten; gerora, eskaintza zabaldu egin zen eta

IRALEko irakasleei, LURGINTZAkoei edo epaitegi-tako langileei zuzendutako ikastaro zehatzagoak ematen ere hasi ziren; eta egun, 30 ikastarotik gorako eskaintza du: etorkinentzat, gurasoentzat, administrazioko langileentzat...

Urte horien joana, egungo egoera, eta etorkizuneko erronkak euskaltegiaren beraren hormetatik entzutea ezinezkoa denez, horma horien barruan luzaroan aritu diren hiru zuzendariak batu eta euren esperientziak jaso ditu *Azpeitian Zer?*ek. Izan dute zer gogoratu eta zer kontatua.

Pello Elorza

Udal Euskaltegiko zuzendaria, 1984tik 1997ra, eta 1999tik 2004ra



Klaseak emateko erabiltzen zuten materiala gogoratuta harritu egin da Pello Elorza. "Fotokopiadorarik ez eta etengabe udaletxera bueltaka ibiltzen ginen, idazmakina erabiltzen genuen ikasle eta irakasleen fitxak eta betetzeko, irрати-kaset handi batzuk erabiltzen genituen... Bideoa orduantxe ari zen abiatzen, DVD eta horrelakorik ez zen esistitu ere egiten... ez dakit nola moldatzen ginen ere!". Egoera horretan, ondo gogoratzen du Elorzak Udal Euskaltegira iritsi zen lehen ordenagailua: IBM bat zen, 40 megako disko gogorra soilik, zuen, baina ordurako sekulakoa: "Azpeitiko udal erakundeetara iritsi zen lehenengoetako ordenagailua izan zen, eta gu zoratzen geunden, zenbait lan egiteko sekulako aurrerapausoa ekarri zigulako".

tzen, DVD eta horrelakorik ez zen esistitu ere egiten... ez dakit nola moldatzen ginen ere!". Egoera horretan, ondo gogoratzen du Elorzak Udal Euskaltegira iritsi zen lehen ordenagailua: IBM bat zen, 40 megako disko gogorra soilik, zuen, baina ordurako sekulakoa: "Azpeitiko udal erakundeetara iritsi zen lehenengoetako ordenagailua izan zen, eta gu zoratzen geunden, zenbait lan egiteko sekulako aurrerapausoa ekarri zigulako".

Patxi Saez

Udal euskaltegiko zuzendaria, 1997tik 1999ra



Zuzendari gisa urte gutxi pasatu arren, irakasle gisa hasiera-hasieratik ibilita, harreman zuzena izan du Patxi Saezek beti udal euskaltegiarekin. Orain ere, Euskara Patronatuko zuzendari bezala, gertutik jarraitzen du bere ibilbidea. "Hasiera hartan guztia gazteleraz ikasitako ikasleak izaten ziren, alfabetatzera etortzen zirenak, eta beste behar batzuk zituztenak". Ikasle haien motibazioaren falta somatzen duela aitortu du, orain orduan ikasleek zuten hizkuntzarekiko maitasun hura galdu denaren errezeloz: "Orain guztiz arrazoik ezberdinegatik

zirenak, eta beste behar batzuk zituztenak". Ikasle haien motibazioaren falta somatzen duela aitortu du, orain orduan ikasleek zuten hizkuntzarekiko maitasun hura galdu denaren errezeloz: "Orain guztiz arrazoik ezberdinegatik

Pelloc berak, Kotsuelo Gorostidik, Ane Amondarainek eta Patxi Saezek osatzen zuten aurreneko ikasturte haietako irakasle taldea, eta euskalduntzeko eta alfabetatzeko ikastaroak ematen zituzten. "Oso giro ona izaten genuen, bai geure artean, eta baita ikasleekin ere, harremanak pertsonalagoak baitziren. Ilusioa ere lepo genuen, ia dena egiteko baitzegoen". Inguruko udal euskaltegiekin lortutako lotura bereziki oroitzen du Elortzak: "Denok ginen hasi berriak, eta hilean behin elkartzen ginen gure esperientziak, metodologia, arazoak eta bestelakoak elkarbanatu eta irtenbideak topatzeko, benetan harreman polita sortu zela gogoan dut".

Burukominak ere baziren, ordea, eta bat gogoratzeotan, lokal egokia lortzeko borroka oroitzen du Elorzak: "Arzubia hiribideko lokal haiek behin-behinekoak izango zirelakoan hasi ginen eta 15 urte pasatu genituen bertan!". Neguan, esaterako, tokia berotzeko berogailu elektrikoak noiz piztu ere hitzartzen zutelara gogoratu da, "koordinatu ezean argindarrak saltatu egiten baitzuen!". Handik Institutora pasatu ziren, eta gero Sindikatu Zaharrera. 2004ra arte ez dute izan egoitza finkorik.

Nostalgiaz oroitzen ditu Udal Euskaltegiaren hasierako urte haiek Pello Elorzak. "Orain bakoitza berera joaten da, indibidualistagoak gara denok, gizartea orohar aldatu delako". Garaiak aldatu direla jakitun, orduko afari eta bilera umoretsuak buruan gelditu da udal euskaltegiko lehen zuzendaria.

etortzen dira, euskararekiko ikuspegi guztiz instrumentala dago, eta lanerako edo titularen baterako ikasten dute gehienek". Garaiak aldatu direnaren jakitun da.

Hain justu, Saez zuzendari izan zenean hasi ziren behararren araberrako ikastaroak ematen Azpeitiko Udal Euskaltegian. Besteak beste, IRALEko irakasleei zuzendutako ikastaroa, edo Euskaltzaindiaren arauari buruzkoa sortu zituzten. "Batzuk arrakasta handia izan zuten, gainera, eta bailara osoan eman genituen, 200 ikasle baino gehiagori". Ondo gogoratzen da Euskara patronatuko zuzendaria. Eta ordutik gaur egunera are salto handiagoa eman delakoan dago, "orain jada behar komunikatiboen araberrako ikastaroak egiten direlako, hizkuntza bera bere baitan ikasi beharrean toki edo momento jakin batean komunikatzen jakiteko, edo titulu ofizial bat ateratzeko".

"Ikastaro batzuk bailara osoan eman genituen, 200 ikasle baino gehiagori"

Esku artean orain 25 urte irakasteko erabiltzen zituzten liburu zaharrak dituela, nostalgia aurpegia jarri zaio Patxi Saezi. "Orain dena da multimedia".

Aintzane Agirre

Udal euskaltegiako zuzendaria, 2004az geroztik.



Ikualdaketa bete-betean hartu zuen Aintzane Agirrek Udal Euskaltegiaren zuzendaritza. Perdillegiko egungo egoitzarako leku aldaketa erdi-erdian hasi zen, eta gainera kurtso hasieran: “Zaila egin zitzaidala onartu behar dut, trasladoo eta ikasturte hasiera batera tokatu zitzaizkidalako”. Baina ilusioa ere bazuen Agirrek, eta behingoagatik leku finko eta egoki bat izateagatik aparteko

poza zutelako: “Hainbeste urteren ostean, lanerako toki aproposa eta ikasleentzat leku egokia izango genituen, eta horrek sekulako poza eragiten zigun denoi”.

Ordutik egungo erronkei behar bezala aurre egin nahian ari dira bai euskaltegia eta baita zuzendaria ere. Ikasturte hasieran lanez leporaino dagoela aitortu du Aintzane Agirrek, “gurea euskaltegi txikia izaki, helburu eta ordutegi bereko talde homogeneoak osatzea gero eta zailago baita”. Horrez gain, ikasleen motibazioa piztu, eta euren behar eta nahi eta ikas estilora moldatu... lan handia dutela ezin ukatu.

“Integratu eta euskara ikasteko ardura gurea ere bada”

Etorkinak dira etorkizunera begira erronka. “Haiek integratu eta euskara ikasteko ardura gurea ere bada”. Baina ez horiek bakarrik: udal euskaltegiak edozein azpeitiarrentzat du eskaintza. Izan ere, gure ingurua oso euskalduna izateak ez du esan nahi gure jakituria hobetu, eguneratu eta berritu beharrik ez dagoenik: “Guztiok dugu beti zer ikasia, eta horregatik, guztiak animatu nahi ditut pauso hori ematera”.

Eskaintza zabala dago, eta dagoeneko matrikula epea ere zabalik da, irailaren 25era arte. Titulu ofizial guztiak eskaintzen ditu, baita EGAtik gorako HABEren 4. maila ere. Iaztik HABEren tituluak gainontzeko tituluekin baliokidetu egin dira, gainera. Ikastaro espezifikokoak ere ugari dira. Ez dago aitzakiarik.

Elkar ulertzeko, euskara

matrikula egiteko aukera zabalik dago jada. Ikasturte honetan udal euskaltegian ikasi nahi dutenek irailaren 25era arte dute izena emateko epea. Seme-alabei etxeko lanetan laguntzeko, komunikabideak ulertzeko, lagun berriak egiteko, lana aurkitzen laguntzeko, euskaraz irakurtzen eta idazten trebatzeko... 30 ikastarotik gora eskaintza prestatu da aurtengorako, eta baita titulu ofizial eta baliokide guztiak lortzeko ikastaroak ere.

MATRIKULA ZAITEZ:

Euskaltegira bertara etorrira:

Helbidea: Perdillegi 1 behea (Musika Eskola dagoen eraikinean).

Ordutegia: 08:00etatik 18:00ak arte.

Telefonoz deituta:

Telefono zenbakia: 943 811947

Internet bidez:

e-posta: euskaltegia@erabili.com

webgunean: www.erabili.com/eskatu/euskara_ikastaroak

Azpeitiko ahotsak entzun daitezzen

Herriko ahozko ondarea eta herri hizkera jasotzeko egitasmoa martxan jarri du Udalak, Badihardugu euskara elkartearekin batera.



Hiru urteko lana izango da. Jada erabaki dute nor elkarrizketatu, eta elkarrizketa batzuk egiten ere hasi dira. Azpeitiko auzo eta gune ezberdinetako 70-80 urteko herritarrak aukeratu dituzte, bertan jaio eta bizimodua bertan egin dutenak, eta haien guraso eta aitona-amonak ere Azpeitiakoak dituztenak. Euskara batuarekin eta jasoarekin hartu-eman handiegirik izan ez duten hiztunak dira, eta nagusiki bizimodua euskaraz egin dutenak.

“Kamera aurrean jarri behar horrek atzerakoa ematen die askori, baina behin hitz egiten hasita, eroso sentitzen dira”. Hala azaldu du Aitziber Otegi lanean ari den teknikariak. Erreparoa alde batera utzi eta elkarrizketetan parte hartzeko eskatu nahi die, hain justu, Udalak, herritarrei, “eurek bestela uste arren, euren egunerokotasunaren testigantzek informazio oso baliogarria emango digutelako”. Askok uste du ez duela kontatzeko ezer, baina XX. mendeko Azpeitiko bizimodu tradizionala jaso eta gordetzeko aparteko balioa duela gogorarazi nahi die.

Behin elkarrizketa guztiak eginda, jasotakoa laburtuko dute. Grabazio guztiak minutuz minutu traskibatuko dituzte, eta edukiaren laburpenak egin. Azkenik, pasarte interesgarrienak hartu eta bideo definitiboak editatuko dituzte. Informazio guztia herritarren esku jarriko da [www.ahotsak.com/azpeitia](http://www.ahotsak.com/) webgunean eta baita udal webgunean ere.

Garai bateko Azpeitiko ahotsak galtzerik ez du nahi Azpeitiko Udalak. Galzorian dagoen ahozko memoria hori gordetzea nahi du, eta horregatik jarri du martxan *Azpeitiko ahotsak* egitasmoa, Badihardugu Euskara elkartearekin batera. Datozen hiru urtetan, herriko auzo eta txoko ezberdinetako 60 adineko pertsoneri elkarrizketak egingo zaizkie, bidez grabatuta, euren bizipen eta istorioak biltzeko.

Azpeitiko ahozko hizkera hobeto

ezagutu eta aztertze aukera emango du bildutako informazioak, baina hori bakarrik ez: bertako memoria historikoa berreskuratzeko ere balioko du, eta horrek ere aparteko garrantzia duela uste du Udalak. Hala azaldu du Ana Mendizabal Euskara batzordeburuak: “Kultura eta etnografia ikuspegitik ere informazio ugari emango du, elkarrizketatuek orduko bizimodua nolakoa zen kontatuko baitigute, eta gure herria azken 60 urtetan nola aldatu den erakutsi”.

Hiri antolamenduaren plan orokorra egingo du Udalak



Etxebeltz-Izarra auziari konponbidea emateko bide hori aukeratu du Udalbatzak

Etxebeltz-Izarra eremuko auzia dela eta, egoerari irtenbidea emateko hiri antolamenduaren plan orokorra egingo du Azpeitiko Udalak. Hala erabaki zuen uztailaren 24an egindako ezohiko batzarrean.

Erabakia ANVko zinegotzien, EA eta Aralarkoen aldeko botoekin hartu zen. EAJ-PNV taldea abstenitu egin zen, indarrean dauden arauen txosten ekonomiko-finantzieroa onartu eta Testu Bateratuarekin argitaratzea ere proposatzen zutelako.

Jarraitu beharreko bidea zehaztu ondoren, orain, epe motxean, lehentasuna etxejabeekin kontratuak sinatu eta oraindik zozketatzeke dauden 54 etxebizitzaren zozketa egitea izango dela adierazi du alkateak.

Gero, jarraian, tasatuenak etorriko lirateke (Kuaratelekoak, Enparan, Nuarbe, Eroski,...).

Jesus-Maria kongregazioak 100 urte



Mendeurrena ospatzeko ekitaldiak antolatu ditu kongregazioak

1909ko abuztuan iritsi ziren Azpeitira Jesus-Maria kongregazioko lehen mojak, "Bartzelonako gertakari tragikoengatik" ihesi. Etxe propiorik ez zuten orduan, eta Jose Egiguren medikuaren etxe batean jarri ziren, errentan. 1915ean eraiki zuten egun Loiolako hiribidean dagoen etxea, eta orduan zabaldu zuten ikastetxea. Bertan inguruetakota eta Espainiar estatuko gazte ugari egin zituen ikasketak, tartean errege familiako printzesa batzuk ere bai.

60ko hamarkadan itxi egin zuten ikastetxe hori, eta orduz geroztik espiritualtasun etxe gisa funtzionatzen du. Bailarako gazte eta umeentzat ekintza ugari eskaini izan dituzte: eskola jantokia, hizkuntza klasea, arte eskola... Eraikinaren azpiko aldeko zatiak, berriz, herriko dantza taldeak erabiltzen du, eta OSAMEN zentroa ere bertan dago kokatuta.

Ehun urteok ospatzeko ekitaldi bereziak antolatu dituzte. Hala, irailaren 19an, Soreasuko parrokiaren Jose Maria Setienek zuzendutako esker emateko eukaristia egingo da, 18:30ean. Urriaren 11an, berriz, Juan Maria Uriarte gotzainak elizkizun berezia emango du Loiolako basilikan, 17:30ean.

Azterketa medikuen zerbitzua, hobetuta



Errendimendua hobetzeko aholkuak ere emango ditu Urola Zentro medikuak

azpeitiko Udalak eta Urola Zentro medikuak berriro egin dute iaz elkarlanerako sinatutako akordioa. Zerbitzua hobetu egingo da, gainera: hemendik aurrera, mediku azterketa egiteaz gain, kirolariaren errendimendua hobetzeko aholkuak eta pautak ere emango ditu sendagileak.

Kirol elkarteek lehentasuna dute azterketak egiteko, eta dagoeneko hartu dezakete ordua, arratsaldez, Udaleko Kirol sailean. Kirol patronatuko bazkideek, berriz, urritik aurrera hartu ahal izango dute ordua, igerilekuan, goizez.

Honako azterketa motak eskainiko dira

- 1. mota (anamnesi mediko-deportiboa, EKG geldialdian, azterketa fisiko orokorra, oinarritzko antropometria + arteria-presioa + egoera fisikoaren balorazioa: Ruffier Dickson testaren bidez + entrenamenduetarako aholku-pertsonalizatua). Bazkideek 30 euro, ez bazkideek 45 euro.
- 2. mota (1. motako sendagile-azterketa (R.D testa izan ezik)+ Espirometria + gehiengo VO2a Balke testaren bidez + entrenamenduetarako aholku-pertsonalizatua). Bazkideek 42 euro, ez bazkideek 57 euro.
- 3. mota (1. motako sendagile-azterketa (R.D testazanezik)+Espirometria + aerobiko/anaerobiko atalase-mailak bizikleta eta pulsometroaren bitartez:zehazte basala odol sastada eginez 3',6',9',12', y 15' etan+entrenamenduetarako aholku-pertsonalizatua). Bazkideek 72 euro, ez bazkideek 83 euro.
- 4. mota Gehigarria (odol analisisa, kirol-praktikara zuzendua), beste motetako azterketekin elkartuz gero. Bazkideek 28 euro, ez bazkideek 35 euro.

Iraurgiko beheko aparkalekua, erabilgarri



Jai egunetan ez ezik, asteburuero zabalduko dute zerbitzu hobea emateko asmoz

Santutxo inguruan aparkatzeko dauden arazoei irtenbide eman asmoz, Iraurgi ikastetxeko azpiko jolastokia asteburuero zabaltea erabaki du Udalak. Orain arte, aparkaleku hori herriko jaietan eta ekitaldi berezietan soilik zabalitzen zen, baina hemendik aurrera asteburuero zabalduko dute, herritarrek aparkatzeko toki gehiago izan dezaten.

Udala jakitun da Santutxo inguru horretan aparkatzeko arazo handia dagoela, eta zerbitzu honekin irtenbide egokia ematea espero du. Egun espaloi gainetan eta toki ezegokietan aparkatzen dute autoa herritar askok, eta hori ekiditea da helburua.

Horrez gain, epe motzera, aste egun gauetan ere irekitzekotan dira Iraurgi ikastetxe azpiko aparkaleku hori, auzo horretan bizi direnek egunero aparkatzeko toki jakin izan dezaten.

“Emozioak behar bezala ez bideratzeak gure osasunari eta erlazioei zuzen-zuzenean eragiten die”.



Pepa Bojo: “Emozioak lantzen” ikastaroa emango duen psikologo eta psikoterapeuta.

Norbere emozioak ezagutu, ulertu eta erabiltzen jakiteko ikastaroa antolatu du Parekidetasun sailak udazkenerako. Urrian hasi, eta abendura arte, hamar saioko ikastaroa izango da, emakumeei zuzenduta. Pepa Bojo psikologo eta psikoterapeutak emango du ikastaroa. Gure emozioak bideratzen ez digutela erakutsi eta sarri galduta sentitzen garela dio Bojok, eta horrek arazoak eragiten dizkigula. Horregatik, ikastaroa guztientzat izango dela onuragarria nabarmendu du.

Zergatik da hain garrantzitsua emozioak ezagutu, ulertu eta erabiltzen jakitea?

Lehenik eta behin, osasunari eragiten diotelako. Norbere emozioak ezkutatu, estali edo bideratzen ez dituenak osasun arazoak izaten ditu azkenean, arazo fisikoak edo psikologikoak. Eta horrez gain, emozioen kudeaketak besteekin ditugun erlazioei ere zuzen-zuzenean eragiten die. Gure emozioak ezagutzen ez ditugunean, gaizki bideratzen ditugu askotan, behar ez den moduan edo behar ez den garaian, eta horrek harremanak okertu ditzake.

Emozioak ezkutatu egin behar direla erakutsi izan digute, ordea, urteetan.

Hala da. Kulturalki ez digute erakutsi emozioak bideratzen, eta horregatik, galduta sentitzen gara askotan, analfabeto samarrak gara ikuspegi horretatik. Emozio bat ezkutatuta desagertu egiten dela uste dugu, baina hori ez da horrela, sentipen horrek hor jarraitzen du, eta bideratzen jakin egin behar da.

Emakumeei soilik zuzendutakoa izango da ikastaroa. Premia handiagoa dutelako?

Ez da gutxiago ere: ikastaro hau gizon-nezkoentzako ere izan daiteke, eta baita mixtoa ere. Gertatzen dena da emakumeen artean eskari handiagoa egon dela, eta horregatik antolatu dugula eurentzat soilik. Gainera, uste dut ikastaro hauek generoka egitea ere interesgarria dela, kulturalki emakumei emakume izateagatik emozio batzuk onartu izan dizkigutelako eta beste batzuk ez. Emozio asko gure genetika propioagatik dira, baina beste asko emakume garelako hala sentiarazi dizkigutelako ditugu. Genero ikuspegitik, horren ingurua, hausnarketa bat egiteko ere interesgarria da. Baina gizonezkoekin ere egin zitekeen, inolako zalantzarik gabe.

Edozein emakumek hartu dezake parte bertan?

Bai: adin guztietako emakumeek eta edozein egoeratan dauden emakumeek. Izan ere, adin eremu bakoitzak bere arazoak

ditu emozioak bideratzeko. Adibidez, adin gehiagoko emakume batek zailtasun gehiago izan ditzake zenbait emozio bideratzen, baina gazte bati gauza bera gerta dakiokete beste zenbait emozioekin. Horrez gain, ez dago zertan egoera zail bat pasatzen egon beharrik ikastaro honetara etortzeko, emozioak lantzen ikastea guztientzat da onuragarria.

Ikastaroaren izena:
“Gure emozioak lantzen”.

Ikastaroaren emailea:
Pepa Bojo.

Nori zuzenduta:
Adin guztietako emakumeei.

Noiz:
Urriaren 5etik abenduaren 30era, astelehenero, 15:00etatik 17:00etara.

Non:
Sindikatu Zaharrean

Izen ematea:
Irailaren 21etik aurrera, Parekidetasun Sailean: 943 15 79 28.

Udazkenean, Erdi Arora buelta

Herriko dendariak Stock azoka jarriko dute iraileko azken asteburuko ekitaldian



Erakustaldi ugari izango dira.

Udazkeneko koloreekin batera Erdi Aroko irudiak iritsiko dira Azpeitiko Alde zaharrera irailaren 26 eta 27an. Erdi Aroko azoka egingo da herriko kaleetan, historiako irudi, ohitura eta usadioak gogoratu eta herri-tartzeko.

Herriko dendariak ere protagonismo handia hartuko dute azoka horretan. Izan ere, aurten ere Stock azoka jarriko dute berdura plazan, atzera gelditutako euren produktuak saltzeko. 25 dendari inguruk jarriko dituzte saltokiak.

Seigarren edizioa izango du aurtengo Erdi Aroko azokak, eta gainerakoetan legez, herritarren parte hartzea handia izango da bertan. Kanean egingo diren erakustaldietan, entzungo diren doinuetan eta salmentan egongo diren postuetan ugari izango dira azpeitiarrak, gero eta estimu handiagoko jaia baita irailaren azken asteburuko hori. Orain arte egin ez baina aurten parte hartu nahi duten herritarrek ere izango dute aukera, gainera: horretarako Udaleko kultura sailera jo besterik ez dute izango. Ongi hartuak izango dira.

Udalak herritarrak parte hartzera animatu nahi ditu. Jada tradizio bihurtzen ari den azokaren bueltan sortuko den giroaz gozatzeko aukera paregabea izango da.



Erdi aroko giroa nagusituko da.



IRAILA

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21/28	22/29	23/30	24	25	26	27



20, igandea

Udaleko gazteri sailak antolatutik Ekintza berezia, jolasak, eskulanak
Ordua: 12:00
Lekua: Udaletxeko arkupea

26, larunbata

ERDI AROKO AZOKA

27, igandea

ERDI AROKO AZOKA

29, asteartea

EIZMENDI AUZOKO JAIK
12:00 Meza Nagusia
Ondoren bazkaria
Erromeria eta bertsolariak

oharrak

Kirol elkarten laguntzak

Azpeitiko Kirol Elkarten ohiko jarduerarako 2010. urteko diru-laguntza eskatzeko epea datorren urriaren 1-31 bitartean izango da, Udal Harrera Erregistroan.

Urte naturalari lotzen zaizkion kirol-modalitateak, aldiz, 2010eko urtarrilaren 1-31ra bitartean aurkeztu beharko dituzte eskaerak.

Edozein zalantza argitzeko: 943 15 00 95 edo kirolak@azpeitia.net.

Mendekotasundun pertsonen zaintzaileentzako ikastaroa

Laguntza teknikoak. Mobilizazioak eta Transferentziak izeneko ikastaroa antolatu du Gizarte Zerbitzuen sailak urrirako. Mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileei zuzendutako ikastaroa da, eta urriaren 6 eta 8an izango dira saioak, 15:00etatik 18:00etara, Sindikatu Zaharreko lehen solairuan.

Etxetek laguntza produktuen Foru Zerbitzuak eskainiko du ikastaroa, eta interesatuek Udalaren Gizarte Zerbitzuetan eman beharko dute izena, irailaren 30a baino lehen.

Gomendatu zure oporrak

Andoain, Arrasate, Azkoitia, Azpeitia, Donostia, Elgoibar, Irun, Hondarribia, Tolosa eta Gipuzkoako Gazte Informazioko Lurralde Zentroko bulegoek "GOMENDATZEN DIZUT: MEREZI DU 2009" lehiaketa antolatu dute aurten ere.

WWW.AIZUE.COM blogean oporraldien kontakizunak, ostatuari buruzko gomendioak, hiri interesgarriei buruzkoak, deskontuetarako agiriak erabiltzeko aholkuak... eskegi beharko dituzte. Guztiz gomendagarria da norberak ateratako argazki bat eranstea, edo nahiago bada bideoak eta mugikorrek ateratako argazkiak.

Gomendioak bidaltzeko azken eguna **URRIAREN 15a** da, beraz, animatu!

botikatxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Irailaren 17, 23, 29an, eta urriaren 2, 7 eta 15ean.

ARANBURU. Enparantza nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Irailaren 18, 24, 28, eta urriaren 3, 4, 9 eta 13an.

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Irailaren 15, 19, 20, 22, 25an, eta urriaren 1, 5,

10, 11 eta 14an.

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Urriaren 16an.

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Irailaren 16, 21, 26, 27, 30 eta urriaren 6, 8, 12,
17 eta 18an

